

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

“Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” udal programaren 2021eko deialdia

2021eko martxoaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021ean “Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” udal programa arautuko duten oinarriak, zeinen helburua baita hiria produktu edo zerbitzu teknologiko berritzaileen portaera ingurune errealean probatzeko erabil dadila sustatzea.

Hori betetze aldera, udal programa horren deialdia argitara ematen da, arautuko duten oinarriekin batera:

1. oinarria. Xedea eta aplikazio-eremua

“Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programa dela medio beren ekonomia zirkularreko irtenbideak edo garapen teknologikoak Gasteizko udalerriko ingurune errealean probatu nahi dituzten enpresen partaidetza arautuko duten baldintzak zehaztea da oinarri hauen xedea.

2. oinarria. Programaz baliatu nahi duten enpresek bete beharreko baldintzak

Enpresatzat joko da —Europar Batasunaren 651/2014 Araudiaren I. eranskineko 1. artikuluan xedatutakoaren ildotik— jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen entitate oro, edozein delarik ere haren forma juridikoa. Zehazki, enpresatzat joko dira artisautza-jarduera edo bestelako jarduerak izaera indibidualarekin edo familiarrarekin egiten dituzten entitateak, pertsona-sozietateak eta jarduera ekonomiko bat modu erregularrean egiten duten elkarteak.

2. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea eskabidea egiten den unean.

3. Jarduera legezko, bidezko eta etikoa garatzea.

4. Garapen teknologiko propioa edukitzea, eta horrek ingurune errealean nolako jokaera duen probatu nahi izatea proba-proiektu baten bitartez.

5. Probatuko diren produktuak interes publiko edo soziala izatea, eta hiria iraunkorrago eraikitzen laguntzea.

6. Epai irmoa dela medio kondenatuta ez egotea, edo delitu ekonomiko, laboral edo ingurumenaren kontrakoengatik prozesatua.

7. Administrazio publikoen aurreko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere. Eskabidea aurkezten den unean ez ezik, enpresak programan parte hartzen duen denbora guztian ere bete beharko da betebeharrak hori.

3. oinarria. Eskabideak balioestea

Batzorde tekniko batek balioetsiko du proposamena, eta hark egiaztatuko du interes publikoa duen, baita ingurumen-eragina positiboa den ere.

— Batzordea sail hauetako teknikariak osatuko dute: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailekoek (sailak leihatila bakar gisa jardungo du eta proiektuari eta duen interes publikoari buruzko informazioa ematen die dagokien udal arloei), Mugi-kortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailekoek (sailak espazio publikoa okupatzeko baimena ematen du) eta Ogasun Sailekoek (tasak eta zerga hobariak arautzen ditu).

– Halaber, proiektuaren ezaugarrien arabera, eragindako udal arloetako teknikariek hartuko dute parte.

Hauek izango dira balioespen irizpideak:

1. Proposamena hiri iraunkorren estrategiarekin bat etortzea. 0 puntutik 40ra. Proposamena arlo hauetakoa izatea balioetsiko da:

– Ekonomia zirkularraren eremuan aplika daitezkeen irtenbideak izatea, eta arlo hauetara zuzenduta egotea: hondakin-korronteak, ekodiseinua, birmanufaktura, konponketa aurreratuak, serbituzioa, negozio-zirkularren eredu berriak eta Euskadiko Ekonomia Zirkularerako Estrategian jasotako edozein arlo.

– Industria adimentsuarekin lotutako irtenbideak.

– Hauen inguruko irtenbideak: mugikortasun adimentsua, offshore 4.0 energia sortzea, beroaren aprobetxamendua, fabrikazio aurreratuak, berrikuntza ireki kolaboratiboa, gaikuntza adimentsua, STEAM ikasketa-eredua (Science, Technology, Engineering, Arts and Maths), 4.0 zerbitzu aurreratuak.

– Garapen teknologikoak, oro har, baldin eta hiri ingurunea eredu iraunkorra goetara bultzatzen dutela proba badezakete.

2. Proiektuaren interes publikoa. 0 puntutik 30era, honela banatuta:

– 2.1. Onura sozialak —kontuan hartuko da, besteak beste, proiektuak pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duen, kolektibo bereziki ahul bati laguntzen dion, irisgarritasuna hobetzen duen edo aukera berdintasuna bultzatzen duen—: 15 puntu gehienez.

– 2.2. Ingurumen onurak —kontuan hartuko da, besteak beste, kutsadura murrizten laguntzen den, edo klima-aldaketa geldiarazten, hondakin gutxiago sortzen, baliabideak hobeto aprobetxatzen, biodibertsitatea babesten—: 15 puntu gehienez.

3. Proiektuaren maila teknologikoa. 0 puntutik 15era, honela banatuta:

– 3.1. Proiektu berritzaileentzako finantzaketa publikoko ildo baten laguntza badu: 10 puntu gehienez.

– 3.2. Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko zentro baten laguntza badu: 5 puntu gehienez.

4. Enpresa edo produktuaren egiaztapenak: 0 puntutik 15era.

– 5 puntu zigiluko: ekoetiketa europarra, EPD, HA (korporatiboa edo produktuarena), EMAS araudia; ISO 14001:2015; ISO 14006:2011, eta abar.

Gehieneko puntuazioa: 100 puntu.

Balioespena egin ondoren, baldin eta proiektuak 60 puntuko edo hortik gorako puntuazioa lortzen badu, aldeko txosten teknikoa egingo da, "Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programan sar dadin.

4. oinarria. Tasa eta prezio publikoak

Espazio publikoaren okupazioa Udaltzak 2019ko urriaren 18an egindako bilkuran onetsitako testuaren 7.1 tasaren arabera arautuko da (2019ko abenduaren 27ko ALHAO, 148. zk.).

5. oinarria. Parte hartzen duten enpresen eskubideak eta onurak

"Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programaren barruan onartutako proba-proiektu bat garatzen duten enpresek onura hauek izango dituzte:

– Behar duten espazio publikoa erabiltzea bere garapen teknologikoa bertan probatzeko.

– Komunikazioa: komunikazio-ekitaldietan parte hartzea eta Udalak enpresa eta garapen teknologikoaren berri ematea, horretarako dituen baliabideen bitartez (web-orria, buletina, prentsa...); hirian bisitan dauden ordezkariak proba-proiektua ikustea, baldin eta bisitaren xedeak proiektuaren gaiarekin zerikusia badu.

Zentzu horretan, deialdiaren oinarriak onartzeak berekin ekarriko du Gasteizko Udalarik bai mena ematea parte hartzen duten enpresen izena eta irudia erabiltzeko hura garatze aldera antolatzen diren jarduerak guztietan, programari zabalkundea ematea xede delarik, eta horrek ez die enpresei eskubiderik emango trukean ordainketarik edo bestelako prestaziorik jasotzeko. Nolanahi ere, erabat bermatuta dago garapen teknologikoari buruzko informazio konfidentziala isilpean gordetzea.

“Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan proba-proiektuaren bat garatzen duten enpresek ez dute eskubiderik izango inongo ordainketarik egin dakien, eta ez dute Gasteizko Udalarekin inolako kontratu-harremanik izango.

6. oinarria. Parte hartzen duten enpresen betebeharrak

“Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan proba-proiektu bat garatzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Gasteizko Udalak eskatutako informazioa eta dokumentazioa ematea.
- Proba-proiektua garatzeko Gasteizko Udalak ezarritako lekua eta epeak errespetatzea.
- Proiektua garatzeko esleitu zaien lekua onik zaintzea.
- Proba-proiektuaren interes publikoko izaerari eta ingurumen-eragin positiboari eustea, hura “Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan garatzen den bitartean.
- Garraioari, muntatze- eta desmuntatze-lanei, instalazioen kontsumoari eta besteri dagozkien kostuak beren gain hartzea.
- Garapen teknologikoa Laborategi Hiriaren web-orrian argitaratzen uztea.
- Baldin eta proba-proiektuaren izaera dela eta batzorde teknikoak hala egin beharra dagoela uste badu, erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea, hura “Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan garatu bitartean eragin litezkeen kalteei aurre egiteko.
- Udalak egiten dituen egiaztatze jardueren menpe jartzea.
- Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar aldatuz gero, Udalarik jakinaraztea.

7. oinarria. Eskabideak aurkeztea

Deialdiko I. eranskineko eskabide-eredua baliatuz aurkeztu behar dira –udalaren webgunean eskuragarri izango dira–, behar bezala beteta, honako lekuetan: San Martineko Herritarrei laguntzeko bulegoetan (Teodoro Dublang kalea, 25) asteleheneetik ostiralera 8:30etik 14:00etara, herritarrei laguntzeko bulegoetan eta Gasteizko udalaren egoitza elektronikoa (<https://sede-electronica.vitoria-gasteiz.org>). Orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

8. oinarria. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina), eta bertan zehazten den dokumentazioa.

– Oroitidazkia, non proba-proiektuaren deskribapena jasotzen den, interes publikoa justifikatzen den, eta ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen eragina gutxitzeko hartutako neurriak jasotzen diren. Suteen kontra babesteko neurriari buruzko informazioa ere sartuko da, beharrezko bada.

— Enpresaren IFZren kopia, eskabidea aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia, eta hura titularra ez bada, jarduteko ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztatzea.

— Proiektua azaltzeko dokumentazio grafikoa (planoak, argazkiak, ...).

— Enpresaren ustez proiektua balioesteko baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Proiektuak "Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programan parte hartzea onesten bada, eta batzorde teknikoak beharrezkotzat jotzen badu, aseguru-konpainia edo -artekaritzaren ziurtagiria eskatuko zaio enpresari —proiektuak programan parte hartzearen aldeko ebazpenean ezartzen den gutxieneko edukia eta gutxieneko kapitala jaso beharko du aseguruak—.

9. oinarria. Prozedura

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren eskabideak kudeatzea, eta balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako.

Balioespen batzorde teknikoak hala proposatzen duelarik onartuko da programa honetan parte hartzea, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena dela medio —proiektuari beharrezko dituen udal baimenak eman zaizkion egiaztatuko da alde aurretik, horretarako—.

Ebazpen horrek administrazio-bidea agortuko du, eta, aukeran, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango da beraren kontra, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoaren ildotik, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa.

Kokapen fisikoagatik edo gaiarengatik proiektuarekin zuzeneko harremana izango duen udal arloko teknikari batek sinatutako tutoretza-txostena erantsiko zaio ebazpenari, zeinen bitartez hark konpromisoa hartzen duen proiektua programa honetan parte hartzea ahalbidetzen duen ebazpenean ezarritakotik aldendu gabe garatzen dela zaintzeko.

Proiektuaren hautaketa, baita "Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programan parte hartzeko betebeharrak ere, enpresari jakinaraziko zaizkio, zeinek, hala eskatzen bazaio, erantzukizun zibileko aseguru kontratatatu duela egiaztatu beharko baitu proiektua gauzatu aurretik, 6. oinarrian adierazi bezala.

10. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Ikuskapen- eta kontrol-jarduketak egin ahal izango ditu Udalak, eta geldiarazi egingo du proba-proiektua ohartuz gero aurreikusi gabeko edozein arrisku dakarkiola ingurumenari, edo pertsonen segurtasunari nahiz osasunari, edo enpresa eskatzaileak nahiz hirugarren enpresaren batek probetxu pribatua edo komertziala ateratzen diola proiektuari, "Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programaren helburu den garapen teknologikoa ikusgai jarri edo frogatetik harago.

11. oinarria. Informazioa eta publizitatea

"Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programan parte hartzen duten proba-proiektuak Udalaren web-orrian argitaratuko dira —fitxa eredu bat landuko da horretarako—. Gainera, eraikin edo bide publiko batean erakusgai jarritako elementu higiezinik, ekiporik eta besterik baldin badago, xafila batekin identifikatu da. Fitxen eta identifikazio-xafilen diseinu-, maketazio- eta edizio-gastuak Gasteizko Udalaren kontura joango dira.

12. oinarria. Epeak

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2021eko abenduaren 15ean bukatuko.

"Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programako partaidetza luzatzerik izango da, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren

erabakia dela medio, enpresak hala eskatu eta batzorde teknikoak aldeko txostena egiten badu. Programako partaidetza bukatu baino gutxienez 15 egun natural lehenago egin beharko da luzapena eskuratzeko eskabidea.

Onartzen bada, luzapena ezingo da izan lehenengo eskabidea aurkeztu zenean onartu zena baino aldi luzeagorako.

13. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko –Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik –.

14. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

15. oinarria. Erantzukizunetik salbuestea

Zerbitzua edo produktua ezartzearen ondorioz enpresa eskatzaileak sor litzakeen gastuak oro beraren eta ez beste inoren kontura izango dira. Bestalde, proiektu pilotua egiteak edozein baimen publiko nahiz pribatu izapidetu beharra badakar berekin, enpresa eskatzaileak berak eta ez beste inork kudeatu beharko du hori, eta orobat hartu beharko du bere gain hura eskatu eta eskuratzearen ondorioz ematen duten pertsona edo agintarien aurrean izan lezakeen erantzukizuna.

Gasteizko udalak ez du bere gain hartzen enpresa eskatzaileek, erabilitako ondare publikoek edo hirugarrenek baimenduta dagoen proba-prozesuan zehar izan ditzaketan ondorio, istripu edo gorabeheren erantzukizunik.

Halaber, udala arlo hauen gaineko erantzukizunetik salbuetsita izango da:

- Enpresak jabetza intelektualaren, industrialaren edo irudien eskubideen arloko edozein berme ez betetze.
- Ezarritako baldintzak ez betetzeak edo gaizki betetzeak ekar dezakeen edozein erantzukizun.
- Parte-hartzaileekiko betebeharrak edo konpentsazio guztiak, baimena ezinbesteko arrazoi, interes orokor edo legez aginduengatik bertan behera utzi edo eten egin behar izanez gero (nahikoa publizitate emango zaio egoera horri).

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 15ean

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*

I. eranskina: eskaera eta zinpeko deklarazioa egiteko orria

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/38/29/63829.pdf>